

Euskara

ere



eman

Etxeak du Giltza



## Hitzak ez du antzik jaboiarekin

-----  
BERNARDO ATXAGA

Casablancan irakasle den Abdelfattah Kilitok behin idatzi zuen bezala, hitzak ez du antzik jaboiarekin. Zenbat eta gehiago erabili jaboia, orduan eta urrituago eta gastatuago; hitzak, ordea, alderantziz, zenbat eta erabiliago orduan eta aberatsago. Beste modu batera esanda, hitza biziko bada, nahitaezkoa da errepetizioa, nahitaezkoa jendearen ahoan behin eta berriro egon dadin. Jakintsu arabiar batek ere hala adierazi omen zuen: *“hitzaren iturriak isuri egin behar du bere ura, gastatu eta alferrikaldu egin behar du bere ura”*.

Esan eta berresan egin behar da hitza. Hortik kanpora ez dago bizitzarik. Erabilera da hitzaren ardatza.

Euskara aurrera aterako al den galdetzen didazu. Erabiliz gero aterako da; bestela, ez.

# HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea



Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta  
eta Usurbilgo Udalak. Euskarako Batzordeak

**Egileak:** Xabier Elortza, Alex Mungia (HABE).

**Maketazioa:** Enrike Larrarte (HABE).

**Proiektuaren sustatzaileak:** Buruntzaldeko udalak  
(Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria,  
Urnieta eta Usurbil). Euskarako batzordeak.

**Babeslea:** Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
(HPS).

**Aholkulari eta lankidea:** Soziolinguistika Klusterra.

*Legezko gordailua* SS-1020-2008

ISBN 978-84-95827-95-1

2008ko iraila



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**HIZKUNTZA POLITIKARAKO**  
**SAILBURUORDETZA**



# non-zer

4

Sarrera



5

1.- Haurren garapena eta hizkuntza

7

2.- Familiaren eta eskolaren egitekoa



9

3.- Zer egin gure seme-alabak benetan elebidunak izan daitezen?

10

3. 1. Guraso euskaldunek, zer?



15

3. 2. Eta bikote mistoetan, nola?

# Hitzak ez du an

4

## Sarrera



Munduko leku asko eta askotan bezalaxe, gurean ere hizkuntza bat baino gehiago bizi dira elkarren ondoan. Hizkuntza horiek ikasi eta erabiltzen baditugu, oso egoera aberatsa eduki dezakegu, aukera emango digulako kultura bat baino gehiagoren partaide izateko, adimena, sormena eta komunikazioan sentiberatasuna garatzeko, nortasuna eta autoestimua indartzeko...

Hala ere, gure hizkuntza-egoera konplexua ere bada. Hizkuntza bat dago (gaztelania) erabat normalizatua eta bere ondoan euskara, berriz, gutxiagotua eta normalizazio-bidean dagoena. Horrek gutako askorengan kezka eta zalantza ere eragiten ditu: zer egin dezakegu?, zer da egokiago?, nola joka dezakegu?...

Hurrengo orrialde hauetan horrelako galderei emandako erantzun batzuk aurkituko dituzu, egoera horietan ziurtasun handixeagoz jarduteko aholku batzuk. Horien bidez gonbita egin nahi dizugu hizkuntza-jokabideei buruzko hausnarketa patxadaz egitera. Ea aholku horiek laguntzen dizuten!

Badakizu, nahi baduzu...



## 1. Haurraren garapena eta hizkuntza

2-3 urteko  
haurra  
hitzak ikasi  
eta jolasean  
aritzen da

Bizitzan erabakigarriak dira umearen lehendabiziko sei edo zazpi urteak, bere ahalmen guztien garapen oso eta egokirako. Gurasook lagundu egin behar diogu umeari, dituen trebetasunak ahalik eta gehien gara ditzan.

Gizakiok geure-geurea dugu jolasa, jatea edo lo egitea ditugun bezalaxe. Haurra hazi eta hezi egiten da jolasaren bidez. Umea jolasean dabilenean, besteak beste, helduon mundura inguratzen da eta gizartean aurrera egiteko jokabideak eta estrategiak ikasten ditu.

Hizketan hasi eta sei bat urte betetzen dituen arteko garaian *hizkuntzaren adina* deitzen diote adituek. Umeak hitzak ikasi eta horiekin jolasean aritzeko irrikan egoten dira.



Hizkuntza, erabiliaren erabiliaz, berez osatzen da giza taldeetan. Hortaz, guztiz garrantzizkoa da familiak umeari laguntzea, haurraren hizkuntza egokia eta osatua izan dadin. Gogoan har dezagun, bestalde, pentsamendu argia hitzen bidez adierazitako pentsamendua dela.

# Hitzak ez du an

6

**Gehiagotan  
abestu  
beharko  
genuke  
umeekin**

Eta, elebidun bilakatzeko bidea ondo egiten bada, etekina hurrek aterako diote prozesuari, bai beraien garapenari dagokionez, baita beste hizkuntza batzuk ikasteko garaian ere, benetan elebidun badira, aukera eta erraztasun handiagoak izan ditzaketelako.

Umearentzako oso erakargarria da musikaz eta kantuz hornitzen dugun edozein ekintza edota jolas. Jolasean eta kantuan ari den bitartean, ohartu gabe ikasiko du umeak. Horregatik, helduok gehiagotan abestu beharko genuke umeekin.

Hurrek ez digute goi-mailako saiork eskatuko, ipuinak kontatzen ditugunean bezalaxe ikusi nahi gaituzte, lotsa alde batera utzita eta sentibera.



## 2.- Familiaren eta eskolaren egitekoa

### Gurasoak eredu dira seme-alabentzat

Familia da euskara ikasteko modurik errazena, merkeena eta eraginkorrena. Horrek huts egiten duenean eskolak bete behar du egiteko hori, baina eskola ez da nahikoa bera bakarrik hizkuntza baten transmisioa ziurtatzeko.

Horregatik, eskolaz eta familiaz gain, garrantzitsua da seme-alaben inguru hurbila ere zaintzea —senideak, haurtzaindegia, zaintzailea, pediatra, lagunartea...—, benetan elebidunak izan daitezen, hots, hizkuntza batean nahiz bestean jarduteko arazorik izango ez dutenak.

### Familian hizkuntza transmititzea da biderik errazena, merkeena eta eraginkorrena



Gazte askok eskolan ikasten dute euskara, baina, gero, haien artean gaztelaniaz hitz egiten dute. Euskara etxean eta lehen hizkuntza modura ikasi dutenak dira, gehienbat, euskara erabiltzen dutenak.

Etxea edo familia ditugu kultura eta hizkuntzari, esaterako, ongien eusten dietenak. Euskara irakastearekin batera, euskara erabiltzeko ohitura edo erabilerarekiko ardura ere transmititzen ditugu gurasook. Horrela, lehen hizkuntzarekin batera, berez geureganatzen ditugu kultura, umorea, pentsaera eta bitzta ikusteko modua.

Guraso erdaldunek, ezinbestean, eskolari uzten diote seme-alabak euskalduntzeko zeregina, seme-alabek ikastetxean ikasteko izena ematen dutenean.

# Hitzak ez du an


8

Grafikoan 4 urteko haurren aste bateko denboraren banaketa ikusten duzu, egunean 11 ordu lo egiten dituela kontuan izanda. Haurra hazten den neurrian, gero eta lo gutxiago egingo du eta gero eta luzeago arituko da eskolaz kanpoko jardueretan edota lagunekin jolasean.

**Eskolak bakarrik ezin du erabilera ziurtatu**

Irudiak adierazten digun bezala, haurrak eskola-aste bateko denboraren %15a besterik ez du igarotzen eskolan. Hori horrela izanik, eskolak bakarrik ezin du hizkuntza biziberritu. Horretarako, funtsezkoa da familia eta auzoetako bizigiroa ere ahalik eta euskaldunena izatea.

Bi arlo ezberdin eta elkarren osagarri dira ezagutza eta erabilera. Eskolaren zeregin nagusia ezagutzan sakontzea da, baina eskolan ikasitakoa beste esparru batzuetan erabili egin behar da, horrela bakarrik sendotuko baitugu ezagutza. Areago, eskolan ikasitakoa kanpoan erabili ezean, ikasitakoak ere galera izan dezake.



Iturria: Eskola hiztun bila, HUIS (1991)



## 3.- Zer egin gure seme-alabak benetan elebidunak izan daitezzen?

**Zenbat eta euskaraz bizitzeko aukera gehiago, orduan eta gaitasun sendoagoa**

Oro har, hizkuntza-egoera hobetzeko derrigorrezkoa da askoren lana eraginkor bideratzea: familia, eskola, haurtzaindegiak, pediatriak, haurzaintzaileak... Helburu nagusia da umearen inguruan ahalik eta euskal girorik aberatsena eta ugariena eskaintzea berak egingo dituen eskolaz kanpoko jardueretan, edo lagunekin eta ingurukoekin izango dituen harremanetan, edo telebista, pelikulak, antzerkiak eta bestelakoak ikustean...

Atxagaren hitzak gogora ekarriz, erabilera da hitzaren ardatza.



# Hitzak ez du an

10

## 3.1. Guraso euskaldunek, zer?

Helburua da, alde batetik, etxean euskara transmititzea seme-alabei eta, bestetik, euskara hori ahalik eta egokiena izatea. Bistan da hizkuntza hori txorrotxa, adierazgarria eta eraginkorra izatea komeni dela.

**Bikotekideen artean euskaraz hitz egitea da giltza**

Baliozko tresna dela sumatu behar du txikitandik haurrak. Eta horretarako giltza da bikotekideen artean euskaraz hitz egitea. Bikotekideek eredu izan behar dute beraien seme-alabentzat. Hori lortzen ez badugu, neurri handi batean, alferrikakoak izango dira geroagoko ahaleginak. Euskarari dagokionez, euskal hiztunen kontzientzia sendotzetik hasi behar da, nortasunean itsatsirik geldituko baitira haurtzaroko bizipen horiek.



Era berean, maila bereko kontraesana izango litzateke haurra euskaraz ikastera bidaltzea eskolara, eta hortik kanpora euskarari garrantzirik ez ematea: ipuinak direla, aisialdiko ekintzak direla, telebista... Zer esanik ez, etxeko harremanetan gaztelania balitz nagusi euskararen kalterako.



# tzik jaboiarekin

## Etxeko euskara erabili harreman arruntetan


Bi ohar:

1) Euskaraz egin gurasoen artean eta seme-alabekin, baita aitona-amonekin eta zaintzaileekin ere; batez ere, eguneroko harremanetan.

2) Gurasook geure hizkuntza-gaitasuna zaindu eta, ahal den neurrian, hobetu.

Bada gurasoen artean halako uste oso zabaldu bat esaten duena "gure seme-alabaren euskara, hori bai euskara dotorea!" eta "gure euskara, hori bai euskara zatarra, eskaxa!". Eta hori ez da horrela. "Lapitza"ren ordez "arkatza" edo "letu"ren ordez "irakurri" erabiltzeak ez du esan nahi, besterik gabe, euskara hobea erabiltzea, ezta gutxiagorik ere!

Hizkuntza hori baino askoz gehiago da; komeni da freskoa eta naturala izatea, doinua zaintzea, esamolde jatorrak erabiltzea, etab.



Hor azpian bada euskara batuaren eta etxeko euskararen arteko borrokatxo bat. Geure euskara pobreagoa irudituko zaigu, beharbada, eta batua, berriz, dotoreagoa, jantziagoa. Baina euskara batua eremu formaletan erabiltzeko asmatu da —telebistan, irratan, irakaskuntzan eta administrazioan—, eta oraindik ere osatzen ari da. Horrela, bada, etxeko euskara erabili behar dugu geure giza harreman arruntetan.

# Hitzak ez du an

12

**Hizkuntzak  
transmititzean  
etorkizun  
hobea  
eskaintzen  
diegu**

Hala ere, ez dugu ahaztu behar gure inguruan gaztelania dela nagusi eta horrek eragina izan dezakeela gure hizkuntza-gaitasunean. Belarria erne edukiz gero, erraz nabari liteke gaztelaniaren eragina erdarakadak botatzen ditugunean edota ideiak adierazteko ezinean gabiltzanean.



**Emaiozu  
euskaraz  
aritzeko  
aukera  
zuk baino  
gutxiago  
dakienari**

Horrezaz gain, euskaraz bizi nahi baldin badugu, ez zaigu nahikoa euskaraz hitz egitea. Zenbaitetan, euskaraz irakurtzen eta idazten ere jakin behar dugu. Esate baterako, euskaldun askok zailtasunak ditu eskolako oharrak euskaraz irakurtzeko, edo irakasleari mezu bat idazteko, edota euskaraz idatzitako ipuinen bat irakurtzeko ere. Eta beste zenbait guraso, berriz, elkarrizketa normaletarako gai dira, baina, hainbat gairi buruz aritzeko, gaztelaniara jotzeko premia sentitzen dute batzuetan.

Denok dakigu zer egin dezakegun eta zer ez, baina komenigarria litzateke, dudarik gabe, nor bere euskarari halako jantzialditxo bat ematea.

Seme-alaben eskolaz kanpoko ekintzak edo estraeskolarrak ahalik eta euskaldunenak izan daitezen ahalegintzea ere ez da eskakizun txikiagoa. Eta garrantzi handia dute bi arrazoiengatik: lehenengo, haurrek denbora dexente ematen dutelako jarduera horietan; eta bigarren, aisialdiko jarduera horiek atseginez egiten dituztelako.

# tzik jaboiarekin

13


Garai honetan oraindik ez, baina, poliki-poliki, eskola lan egin beharrekin lotzen dute haur-gazteek, obligazioarekin; eta aisialdia, berriz, egoera atseginekin, plazerarekin.

## Erabakia gurea da

Gure egitekoa da euskaraz bizitzeko aukera horiek bilatu, dagoena erabili eta ez dagoena eskatzea.

Bestalde, hizkuntzak erabili egin behar dira biziko badira. Edonon erabili ere: etxean lehendabizi, jakina, eta lagunekin, baina baita lankide, dendari eta pertsona ezagunekin ere. Esaterako, komenigarria litzateke, baita ere, ikastetxeko beste guraso euskaldunekin ere euskaraz egitea, gelako bileretan, ikastetxearen inguruko mundutxo horretan euskaraz aritzeko ohitura hartzea, giroa euskalduntzen joateaz gain, erraztasunik ez dutenentzat lagungarri ere izan dadin.

## Hizkuntzak erabili egin behar dira



Gauza bera ezezagunekin ere. Lehen hitza euskaraz luzatzeak euskaldunen arteko harremanak handitzea dakar eta gure seme-alabentzako euskarazko bizimodu osoa ziurtatzeko bidea jorratzea.

# Hitzak ez du an

## 14 Laburbilduz

**Zer egin seme-alabak benetan elebidunak izan daitezzen?**

- 1.** Euskaraz egin bikotekidearekin.
- 2.** Seme-alabekin euskaraz hitz egin beti. Ahal dela, senitartekoen eta zaintzaileen arloa ere zaindu.
- 3.** Euskara etxetik jaso eta eskolan lantzeko aukerarik izan ez baduzu, hitz egin lasai zeure etxeko euskarari, hortxe sentitzen zara-eta seguruen.
- 4.** Ahal den neurrian, zeure hizkuntza-gaitasuna zaindu eta hobetu. Horretarako, aukera dagoenean, eguneroko eginkizunetan euskaraz jardun edota euskara bera ere landu. Ondorioz, hobe izango da seme-alabei eskainiko diegun euskara-eredua, eta, gainera, gaia garrantzitsua dela erakutsiko diegu.
- 5.** Seme-alaben eskolaz kanpoko ekintzak euskaraz izan daitezzen arduratu (aisialdia, ipuinak, jokoak, filmak...), eta, ahal den neurrian, beraiekin batera parte hartu zenbait ekintzatan.
- 6.** Gainerako guraso euskaldunekin euskaraz egin eta, bereziki, gutxiago dakitenei euskaraz aritzeko aukera eman.

## 3.2. Eta bikote mistoetan, nola?

Gure artean, gero eta bikote misto gehiago dago —bikote mistoan batek bakarrik daki euskaraz—. Ondorioz, familiaren baitan bi hizkuntza daude (gutxienez), eta, horrexegatik, arreta berezia eskatzen digu egoera horrek elkarbizitza hori aberatsa izan dadin.

Hizkuntza ezberdinen jabe diren bikote mistoak oso arruntak dira mundu osoan. Bizi dugun egoera soziolinguistikoan ematen du transmisioa ziurtatzeko biderik eraginkorrena hizkuntza-banaketa deritzona dela —gurean hizkuntza nagusi bat dago (gaztelania) erabat normalizatua eta beste bat gutxiagotua eta normalizazio bidean dagoena (euskara)—. Printzipio horren arabera, guraso euskaldunak euskara erabiliko du seme-alabekin eta bikotekide erdaldunak, ordea, gaztelania.

**Munduan  
6.000  
hizkuntza eta  
200 estatu  
daude.  
Eleaniztasuna  
oso arrunta  
da**



# Hitzak ez du an


16

**“Guraso bakoitzak hizkuntza bat” printzipioak lagundu egiten du, eta haurrek normaltasun osoz hartzen dute**

Mundu mailan egindako hainbat ikerketaren arabera, hizkuntza-banaketak edo *“kide bakoitzak hizkuntza bat”* printzipioak lagundu egiten du horrelakoetan, eta egiaztatu ahal izan da familiako kide txikienek normaltasun osoz hartzen dutela.

Beraz, komeni da guraso euskaldunak euskara erabiltzea seme-alabekin, eginkizun hori eskolaren esku utzi gabe. Gauza bera esan daiteke aitona-amona eta zaintzaileei buruz. Horiek ere zaindu eta hobetu egin beharko lukete, ahal den neurrian, beren hizkuntza-gaitasuna.

**Garrantzitsua da guraso erdaldunak, ahal duen neurrian, euskara ikastea**





### Eta bikote mistoetan, nola?

**1.** Irizpide orokorra: guraso euskaldunak erabil dezala euskara etxean seme-alabekin.

**2.** Zenbat eta euskara egokiagoa transmititu, orduan eta hobeto. Beraz, guraso euskaldunak, ahal duen neurrian, zaindu egin beharko luke bere hizkuntza-gaitasuna. Nolanahi ere, euskara etxetik jaso eta eskolan lantzeko aukerarik izan ez baduzu, hitz egin lasai zeure etxeko euskarari.

**3.** Bestalde, guraso erdaldunak gaztelania erabiliko du. *“Pertsona bakoitzak hizkuntza bat”* printzipioak ez dio inolako eragozpenik eragiten haurrari.

Hizkuntza-transmisioaz ari gara, baina baita ere haur-heziketaz. Horregatik, garrantzitsuagoa da haurrak ongi ulertzea adierazi nahi dioguna, oraindik menderatzen ez den euskara batean ahalegintzea baino.

**4.** Horrekin batera, komeni da guraso erdaldunak ere euskara ikastea, hurbil dadila, besterik ezean, erdi-maila batera. Baina zein helbururekin?

a) Familiako hartu-eman arruntetako komunikazioak jarraitu ahal izateko, gainerako senitartekoek hizkuntza aldatu beharrik gabe. Eta horrek ez du esan nahi gaztelania erabili ezin duenik; hau da, menderatzen duen hizkuntza.

b) Familiako gainerako kideekin batera eskolaz kanpoko edo aisialdiko ekintzetan edo eskolako bileretan euskaraz parte hartu ahal izan dezan.

# Hitzak ez du an

18

Poliki-poliki, euskara-maila jaso lortzen den heinean, litekeena da familiako harreman-hizkuntza arrunta euskara izatera iristea.

**5.** Horrezaz bat, ezingo dugu ahaztu bi hizkuntzen egoera ez dela simetrikoa eta, beraz, haurra benetan elebiduna izan dadin, ahalegin handiagoa egin beharko dugula haurrak, familiaz gain, euskara erabiltzeko esparru gehiago izan ditzan: eskolaz kanpoko jardunean, lagunartean...

e parecen al jabón